


Ezinbizia “aiher” suerte bat bilakatzen delarik

Begizolia | © 2025-11-25 11:08

2 45



Azken batean

Lourdes Oñederra

Erein, 2025

Hasiera batean

Ixa hil da (X). Pedro sortzez. Kepa bilakatua. *Ixa* ez da *Azken batean* nobelaren protagonista. Alta bada, bera hizpide izaki, bera da istorioari hasiera eta amaiera ematen dizkiona. Bera da nobelaren istorioa izekirik atxikitzen duena. Bera da nobelaren motorra. *Ixa* intelektuala da. ETAKo kidea izan zen –hortik *Ixa* izengoitia– eta ezker abertzalearen ideologoa ondoren. *Ixa* izengoitia Elisak asmatua da, berak bakarrik darabil. Pedro-Kepa Elisaren koinatua eta Elixabeteren osaba da. *Ixo* funtezkoa izanik ere, Elisa eta Elixabete dira nobelaren arima. Arima eta zioa. Ama eta alaba bikoa. Protagonistak. Pertsonaia nagusiak. Beraiek dira istorioaren eramailiak, istorioaren iruleak. “Hurbilak” eta “urrunik” aldi berean. Oroitzapenetan kateatuta. Lazgarria eta zoragarria den bizi-esperientziaren –eta nobela honen– pertsonaia inspiratzaileak.

Moldeaz eta hizkuntza

Nobelaren egitura ez da lineala. Kontakizunak atzera-orainera egiten du jauzika eta aldika. Hasieran haria hartzea kostatuko zaizu. Ez idazlearen trebezia eskasa dela eta. Ez horixe! Generoak eskuarki eskatzen duen arreta exijitzen baitizu nobela honek ere. Kontakizuna eguneroko bizitzaren puskez eta pasartez osatuta dago: iraganeak gehienak. Mingariak gehienak. Atzera eta orainera egite horretan kokatzeko zure adimen eta arreta atezuan jarri beharko dituzu. Atezuari bizi direlako ere bai bi protagonistak: ama-alaba bikoa.

Puzzle-osatze moduko bat hautesmanen duzu istorioa garatzen den ahala. Lehen lau atalak iragan heinean aiseago mugituko zara iraganaren eta orainaren joan-etorrian. Boskarren atala berriz, geroaldian idatzita irakurriko duzu. Narrazioaren patxadak eta kadentziak –hasiera eta amaiera bitartean– istorioaren oreka gisako bat lortzen du. Idazleak nahi zuena erdietsi duelakoan nago. Hots, irakurlea istorioari atxikirik mantentzea. Kontakizuna erreusitua da.

Idazketan eta hizkuntzan berezitasun zenbait kausituko dituzu. Elkarriketak narrazioan integratuta daude. Salbuespenak salbuespen –amaren eta alabaren artekoak, eta *Ixorekiko* baten bat–. Elkarriketak kakotx beharrik gabe gauzatuta daude. Ez da jardun berria nobelagintzan. Haatik, idazketa-ariketa hori gauzatzea ez da erraza. Elkarriketak gipuzkeraz idatzita daudelako dituzu bereziak eta bereizgarriak. *Batuak batu*, idazleak lizentzia hori hartu du. Egokia ote den? Irakurle bidaide horrek, zuk zuek ebatziko duzu. Nork bere gustua.

Kokapenaz

Gipuzkoan zaude, irakurle hori. Donostian hain juxtu ere. Nobela hau, besteak beste, hiriburu horren idiosinkrasiaren isla da; iragan mende erdi luzeko jendartearena. Donostiako herritarren estetika burgesaren jitea oso agerikoa antzemanen duzu. Probintziako herritar arruntentzat: *donostiarrismo*aren irudipen moduko bat. Edo. Hor nonbait. Frankismoaren garaitik gure egunetara eboluzionatu duen jendarte baten gaineko introspekzioa. Bertako euskal familia katoliko-abertzale-nazionalista baten erretratu.

AEBetako San Frantzisko hiriarren “paisaia” duzu halaber –paisaia urbanistikoa– nobelaren beste kokapen fisiko bat. Ez da bakarra. Espainia aldeko bertze hiri batzuek ere ageri dira. Granada da horietako bat. Doi-doia. Baita “gure” Ipar Euskal Herria amiñi bat agertu ere. Zuberoa tarteko. Nobelaren paisaia askotarikoak ederto islatzen du euskaldunon nondik norakoa, iragan mendeko –bi gizaldiko ere, naski– euskaldunaren izatasuna.

Labur zurrean, haxe: 1936ko Gerra Zibila, haren ondorengo diktadura frankista –frankismoa hitz batean–, haren nazional katolizismoa, euskal nazionalismoa eta haren ondorengo erakunde armatua (ETA) dira nobela zeharkatzen dituzten bektoreak. Horiek eragin duten herritarren “erbestea” duzu leimotiba. Erbeste behartua(k). *Ixarena*, kasu. Baitezpadako “erbestea(k)”. Elixabeterena, kasu. Hau da, *Ixaren* ondorengo belaualdiko jende askok, Elixabetek konparazioenera, bere burua “erbestera”-tu behar izan du.

Azken batean nobelak berezko karga literario eta musikala dauka. Horiek eskuarki idazlearena –haren bizitzarena– dira. Emmylou Harris musikariaren eta Matraka Begen idazlearen aldeko Elixabeteren atxikimendua dugu horren laginetako bat. Leonard Cohen tarteko. Ez dira bakarrik. Iragan mende erdian jaitutako belaualdi baten jaidura poetikoak eta musikalak giroten dute istorioa. Nobelaren narratzailearen eta idazlearen arteko sinbiosia antzemanen duzu, agian. Nik halaxe antzeman diodalako diotsut.

Nobelaren idazlea jaio zen urtean jaio zen Elixabete. Urte berean sortu zen nobelaren kontakizuna ardatzen duen erakundea: ETA. Nobelaren trama eta drama –nobela tragikoa da oroz gainetik– Elisa-amaren eta Elixabete-alabaren oroitzapenetan sustengatzen da. Oroitzapen mingariak. Bi familiaren arteko harremanek hariltzen dute istorioa: Joxean eta Elisa senar-emaztea eta hauen alaba Elixabete. Pedro-Kepa eta Elene senar-emaztea. Joxean eta Elene neba-arreba dira. Horiek dituzu belaualdi horretako familia-nukleoaren partaideak.

Pertsonen arteko ezagutza –ezagutza konplexua– nerabe garaian hasten da. Pertsonen gazetasurean izaten diren harremanak, hala “lorpenaz” nola “frustrazioez” markatuta izaten dira, baita horiek bizi osorako oroitzapenez zipriztinduta geratu ere. Komunzki, harreman zapuztuek eragina izugarria izaten dute familiako ondorengoengan. Halatsu nobelan ere bai. Pedro –Kepa– eta Elisaren arteko harreman zapuztuak marka sakona eragin zien bi pertsonaia horiei betirako, bai amari bai alabari. Nerabe-gaztetasun garaiko grinak eta desirak markatzen dute norbanakoaren bizitza, betirako markatu ere. Kepak Elisari eginiko sexu-urratze-bortxaketak, Elixabete ilobarekin ere erreplikatuko dira. Errepikatuko ditu koinatu-osabak.

Identitate(k), maitasuna(k), emozioa(k), arrazoa(k), bakartasuna(k)... Pluralean paratu ditut. Izan ere, horien bizipeni buruzko gure memoria, “selektiboa” izaten da: nork bere memoria eraikitzen du. Herri baten identitatea, identitate anitzez osatuta dago, ordea. Maitasuna anitz dira, maitatzeko modu asko baitago. Emozioak –grinak eta desirak– arrazionaltasun ezaren espresioak dira. Bakardadea –bakartasuna edota inkomunikazioa– ez da molde bakarrekoa: bakardade behartu-agerikoak eta arrazoi-ezkutuzko bakardadeak daude. Bakardadeak “urrunketa” dakar. Bakartasunak “isiltasuna” dakar. Isiltzeak urruntzea. Elixabeterena, kasu.

Emakumea ama gisa. Emakumea emazte bezala. Emakumea alaba legetxe. Iraganean jasandako laidoen ondorioak gainditzeko beharrezkoa den ekimen-adoretsua da Elisa-amarena eta Elixabete-alabarena. Alabaina, iraganeko euren erruen eta frustrazioen sufriarioak bizi dira orainean. Iraganean bizitakoari buruzko euren hausnarketak mingostasunez zipriztinduta daude. Pentsamendu logikoak. Pentsamolde arrazoituak bereak.

Azken batean nobela etsipenezko oihu bat da. Hala berean, etsipenaren aurkako oihu gisa hartu dezakezu. Elisa eta Elixabeteren oihuek isiltasunean hartzen dute babes, isiltasunean “errefuxiatu” egiten dira. Emakumea jendartearen bigarren rol bat jokatzera behartua izan da, gizonak behartua. Euskal Herriaren aspaldiko iraganean hala nola iragan berrian emakumea zokoratua izan da, baita laidotua izan ere –tira, kontu unibertsala duzu–. Hartara, emakumeak barne “erbeste” batera eraman du bere burua. Inora erbesteratut beharrean, bere baitan erbesteratua “bizi” izan da. Fisikoki erbesteratut barik, gogo-aldartearen erbestertatzea “pairatu” du. Isiltasuna aterpe bilhurtua den jendartearen bizi behar izateak norbanakoa barne erbeste batera bultzatzen du. “Barne erbestea” eta “espetxea” sinonimoak dira. *Azken batean*, emakumea barne erbeste horretatik ateratzen laguntzeko nobela ondu du Lourdes Oñederra idazleak.

Azken batean (nobelak iradoki zipriztinak)

– **Azken batean nobela euskal herriaren** –minuskulaz– idiosinkrasiaren erretratu baino askoz gehiago duzu. Minuskulaz adierazi dut, herri txikia baita “gurea”. Anartean, maiuskulaz idatzera ez delako iritsi –errateko modu bat duzu hori ere–. Aberriaren aldeko jarduerak eta kontrakarreko aberrien jardunak herri horretako pertsonen izaerak –eta baloreak– aldrebestu izan ditu, baita jardun horiek ezkutatzera eta isiltzera “behartu” ere.

– **Pertsonen “isiltasunak” eta elkarrengandiko “urruntzeak”** –*Azken batean* nobelan nola– jendearen eta jendarte horren idiosinkrasia areago konplikatu dute. *Azken batean*-en nabaria da oso euskaldunon aiurri zaildu hori. Herri honen historiaren bilakabideak –arrunt tragikoa– euskaldunon ageriko izaera hori eman digu.

– **Zer izan garen oroitzea baitezpadakoa begintatzen zait.** Nobelak ederki islatzen du hori, familia ertaineko baten izaera medio. Erran dezagun, familia burges baten jitearen bidez. Nago, euskaldun suerte hori ez ote den iraganekoa jada. Mende berrian, bestelako jendarte eta bestelako euskalduna “engendratu” da.

– **Iraganeko jendarte horretako izaera bi ardatz nagusi izan ditu:** nobelan, biak ala biak, *Ixo* pertsonaiaren ildoan eratuta daude. Identitatearen arazoa dela medio, bortxaren erabilpena sustatu izan du *Ixo*k. Intelektualtasunetik sustatu eta justifikatu ere bai. Justifikazioak agortu ahala, “terrorismo”-ra lerratu izan zen jarduera. Hala berean, *Ixo* pertsonaia sexu-erasotzailea ere bada. Bien ala bien nahasketak nahasmendu izugarria ekarri zuen. Nahasmen lehargarria.

– **Ez naiz Pedro-Kepa pertsonaiaren izaera “posiblea” ukatzeko inor.** Idazleak eginiko hautua da. Zilegia ez ezik, haizu ere bada. Hautu ausarta, hots. “Errealitateak fikzioa” gainditzen duela erran ohi dugu. Gertatzen da ere, askotan, “fikzioak errealtatea” aiseki gainditzea. Bestela erranik, idazleak ondu ohi duen fikzioa oso “selektiboa” izaten da. Istorio honetan hautu hori egin du idazleak. Bestelako bat ere egin zezakeen.

– **Adibide bat paratuko dut:** Fernando Aramburu donostiarraren *Patria* nobelako apaiza, abertzale-katoliko-erreakzionario bat da –ETArek sorrerera apaiza berealdiko militantea izan zen–. Aramburuk bestelako apaiz mota bat aukeratu izan zezakeen. Errate baterako, apaiz-langile-marxista bat. Biak ala biak, ETA fenomenoan eragile berebizikoak izan ziren.

– **Literaturaren sortze eta emaitza orotan** izaten dira airean geratzen diren pasarteak. Elipsiak dira badiuetan, irakurleak bere kautan, aliritzira, osatu behar dituen keimauk edota iradokizunak. Adibidez, Elixabeteren bikotekide Alex-en izaeraren gainean dagokeen sexu-indefinizioa duzu horietako bat.

Beste bat, familiaren izena *Araluze* izatea. Nor izan zen Araluze? Elisak Pedro bilakaturiko Kepa, *Ixo* izendatu du. Iragan berriko gatazka odoltsuan *X* delakoak berezko konnotazioa izan zuen. Badauka orain ere. Azkeneko bat. Honako hau neure memoriaren manikeismoaren eraginekoa izan liteke. Bakardadeak “urrunketa” dakar. Bakartasunak “isiltasuna” dakar. Isiltzeak urruntzea. Imanol Larzabal kantari donostiarra heldu zait gogora.

– **Nire interpretazio honi biper pixka bat jarri aldera:** kristau-katolizismo-nazionalistaren abarora jaio –espainol nahiz euskalduna izan– eta marxista-leninista bilakatutako fenomeno, fenomeno matxista-estalinista ere izan da, bada gaur egun ere. Biak ala biak, sexu-harrapakari totalitaristak.

– **Idazleak manikeismo moduko bat erabili duela? Bai. Edo ez.** Inor ez gara libratzen iragana eta historia aldatzeaz, oroitzapenen bidez aldatzeaz, areago, eguneroko bizitza estresatuaren eraginez aldatzeaz ere. Alegia, iragana berau aldatuz, nahastuz eta desitxuratuz eraiki izaten dugu oraina. Eta etorkizuna, hala berean, baita oroitzapen horien arabera eraiki ere.

Gogoeta horren ondorioz haxe: errealtitatea ez dago istorio hori nobelan dagoelako –errealtitatea objektiboki kontatzea ezinezkoa da eta–, errealtitatea irakurleak eraikitzen duen literaturaren bitartez. Errealtitatea –fikzioa ezinbesteko ezaugarria izaki– irakurle norberak literaturaren gainean egiten duen interpretazioan dago. Azken batean, *Azken batean* nobela horren arabera baloratu izan nahi dut.

– **Idazleak behin baino gehiagotan**, *Ixo*k eta bere ildo kideek egiten duten “oroitzapen selektiboa” salatzen du. Arrazoi du. Alta bada, aldi batez, aldi luze batez jendarte horrek berak “oroitzapen selektiboa” egin zuen. Erlijioak erlijio, ideologiak ideologia, biak ala biak fedearen eragileak izaki. Zorigaitzez, “giza” historian, hasierako objektiboak, uestezko objektibo selektiboak objektibo diskriminatzaileak bilakatu izaten dira.

– **Fenomeno sozial-politiko-kultural-bortitzen gibelean**, berau osatzen eta elikatzen dituen “beldurra” dago. Bortxaren monopolioa daukan estatuek eragiten duen “beldurra”, hasteko eta behin. Estatuak sustatzen duen “beldurra” errepikatu izaten du erantzuneko fenomenoak berak. Fenomeno erreakzionarioak. Beldurra da norbanakoa erantzuneko erantzuneko erantzuneko erantzuneko erantzun. Giza-harremanak hurbilagoak izan beharrean, harreman hotzak sortarazten dituen. Monstru

– *Leviatan*– handiaren aurkako borroak monstru txikiak sortarazi izan ditu historiaren bilakaeran. *Ixo* monstru handia edo txikia ote den? Monstruek ez dute izaririk. Denok monstru bilaka gaitzek. Ez gara horren libre, alafede. Dudarik gabe, nagusikiro, historiako monstruak gizonak eta arrak izan dira. Alafede, hori ere.

– **Nobelaren azken orrialdean, honela diotso alabak amari:** “Kalte handia egin digu gizon horrek”. *Ixo*-z ari dira. Barre algarak entzuten dira hitz horien artean. Horrela izan dadin arrazoa eta beharra dauzkate ama-abala bieki, noski.

– **Azken batean, iragana garbitzea funtezkoa dugu.** Memoria etoia da, ordea. Oroitzapenak traditzen gaitu. Memoria egiteak ez du den-dena garbitzen. Beti geratzen da hasikin kaltegarri-mingarri bat gure emamunean.

Azken batean, labur esanda: liburuaren hasierako poemak ematen dio istorioari zentzua, baita nobelari zentzu bari ere. Poema desitxuratzeo arriskuan nago. Nire azken batean, haxe: “Bizitako ia guztiak” berdin dio, “emandako minak eta hartutako oinazeak” izan ez ezik.

Alabaina edota haatik, ezinbiziak “aiher” suerte bat sorrarazten du gure baitan ezinbestean.

2 45

Iruzkina

2025-11-26 10:44 #1

Irakurtzeko gogotsu!

Mikel Asumendi Agirre 2025-11-26 11:59 #2

Pozten naiz!

Utzi iruzkina:

Erabiltzaile izena

Eposta

Captcha

☐ I'm not a robot

Bidali